

La ocupación de 2003 fue de 896.200 personas, 7.900 más que hace un año

El 2003 continúa la línea de los últimos años de aumento del número de ocupados, a pesar de que el número de parados ha crecido respecto al año 2002.

2003ko okupazioa 896.200 lagunekoa izan zen, aurreko urtean baino 7.900 gehiago

2003. urteak azken urteotako bideari jarraitu dio eta landunen kopurua handitu egin da, baina langabeak ere gehitu egin dira 2002. urtearen aldean.

Euskal AEko lan-eskaintzaren zifrak

Cifras de oferta de trabajo en la C.A. de Euskadi



Durante 2003 la cifra media del número de ocupados en la C. A. de Euskadi ha sido de 896.200 (+0,9%). La población ocupada ha aumentado en los tres Territorios Históricos. En términos relativos destaca el aumento de Gipuzkoa (+1,6%), seguido por el de Álava (+0,7%), siendo el crecimiento de Bizkaia algo menor (+0,5%).

2003an, landunen kopuruaren batez besteko kopurua 896.200koa (%+0,9) izan da Euskal AEn. Biztanleria landuna hiru lurralde historikoetan igo da: balio erlatibotan Gipuzkoako igoera nabarmentzen da (%+1,6); haren atzetik Araba dator (%+0,7), eta Bizkaiko hazkundera txikixeagoa izan da (%+0,5).

El sector servicios aporta 8 de cada 10 nuevos empleados

El volumen de ocupados ha aumentado en todos los sectores económicos salvo en la industria, en donde descende en 5.000 personas. El sector servicios con 6.600 ocupados más, aporta 8 de cada 10 empleos nuevos. Le sigue la construcción con 3.600 y agricultura y pesca con casi 3.000 más. Este último sector ha sido, a diferencia de 2002 en el que fue la construcción, el que ha tenido el aumento relativo más importante.

Atendiendo a la situación profesional, el número de autónomos ha aumentado en un 2,7%. También en términos relativos aumenta ligeramente el número de empleados asalariados (+0,4%). Sin embargo, el número de empleadores ha descendido de forma notable (-7,6%).


10 langile berritik 8 ekarri ditu zerbitzuen sektoreak

Landunen bolumena sektore ekonomiko guztietan igo da, industrian izan ezik, sektore horretan 5.000 lagun galdu baitira. Zerbitzuen sektoreak 6.600 landun gehiago ditu eta 10 enplegu berritik 8 jartzen ditu. Eraikuntzak jarraitzen dio 3.600 lagunekin eta nekazaritza eta arrantzak ia 3.000 lagun gehiagorekin. Azken sektore hori izan da hazkunde erlatiborik handiena izan duena; 2002an, berriz, eraikuntzak izan zuen.

Lanbide-egoerari gagozkiolarik, autonomoen kopurua %2,7 igo da. Era berean, balio erlatibotan, soldatako langileen kopurua ere apur bat igo da (%+0,4). Hala ere, enplegatzaileen kopurua nabarmen jaitsi da (%-7,6).

16 urte eta gehiagoko biztanleria landunaren bilakaera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. (Milakotan)

Evolución de la población de 16 y más años ocupada. C.A. de Euskadi. Promedios anuales. (En miles)



Baja ligeramente el número de los ocupados con contratos temporales

Por otro lado, dentro de los asalariados, el número de los contratados fijos ha aumentado en un 2,1% en este año, mientras que el de los contratados temporales descende algo más de un punto. Por ello, la proporción de contratados indefinidos sobre el total de asalariados, 67,2%, es algo superior a la de 2002 (+1,1 puntos porcentuales).

Esta proporción en 2003, de casi 7 asalariados con contrato fijo de cada 10, no es uniforme en los colectivos estudiados. El porcentaje más elevado se da en los asalariados de 45 y más años (85%) y en la industria (75,4%).

Apur bat jaitsi da aldi baterako kontratudunen kopurua

Urte horretan, bestalde, soldatakoen artean, kontratu finkodunen kopurua %2,1 igo da; eta aldi baterako kontratudunena, berriz, puntu bat baino zertxobait gehiago jaitsi da. Hori dela eta, kontratu mugagabedunak soldatakoen guztizkoaren aldean duen proportzioa, %67,2koa, 2002koa baino zertxobait handiago da (ehuneko +1,1 puntu).

2003ko proportzio hori (10 soldatakotik, kontratu finkoa duten ia 7 soldatako) ez da berdina aztertu diren talde guztietan. Ehunekorik altuena 45 urte eta gehiagoko soldatakoen artean (%85) eta industrian (%75,4) izan da.

**Mugagabe kontratatutako landunen proportzioa, soldatako landunen guztizkoaren aldean.
Euskal AE. Urteko batez bestekoak. (Milakotan)**

Proporción de ocupados contratados indefinidamente sobre el total de ocupados asalariados.
C.A. de Euskadi. Promedios anuales (en miles)

	2002	2003
GUZTIRA/ TOTAL	66,1	67,2
Gizonezkoak/Hombres	72,0	72,0
Emakumezkoak/Mujeres	57,6	60,7
16-24 urte/años	26,8	27,4
25-44 urte/años	62,3	63,8
45 edo gehiago/o más	86,2	85,0
Nekazaritza eta arrantza/Agricultura y pesca	58,2	63,3
Industria	75,5	75,4
Eraikuntza/Construcción	46,0	42,3
Zerbitzuak/Servicios	64,2	66,7

En el otro extremo, están los más jóvenes (de 16 a 24 años) y los asalariados de la construcción, con un 27,4% y 42,3% de contratados indefinidos sobre el total, respectivamente. Las mujeres con contratos indefinidos rondan el 60%.

La tasa de paro crece del 8,3% al 8,6%

Junto con el aumento de la ocupación en el año 2003 se produce un aumento del número de parados en unos 3.800 respecto a 2002, un 4,7% más. La tasa de paro se incrementa al 8,6%, lo que supone 0,3 puntos porcentuales más que en 2002.

Por Territorios Históricos, el número de parados desciende sólo en Bizkaia -1.600 parados menos-, mientras que aumenta en Gipuzkoa y en Álava, 4.200 y 1.400 respectivamente. La tasa de paro de 2003 en Álava asciende al 7,8%, en Bizkaia al 9,3% y en Gipuzkoa al 7,9%. Gipuzkoa, que era el Territorio con mejor tasa de paro en 2002, empeora en 2003 con 1,1 puntos porcentuales más, y Álava con 0,8 más. Sólo Bizkaia mejora con 0,4 puntos porcentuales menos.

Si en 2002 la tasa de paro de Bizkaia se distanciaba 2,7 puntos porcentuales de la de Álava y 2,9 de la de Gipuzkoa, en 2003 la diferencia se reduce a 1,5 puntos en el primer caso y a 1,4 en el segundo.

El diferencial de la tasa de paro por sexo disminuye 1,4 puntos porcentuales, aunque la de las mujeres casi dobla a la de los varones

En 2003 ha aumentado el número de varones parados y ha descendido el de mujeres en esa situación. En términos relativos, el número de parados varones ha aumentado un 14,5%, mientras que el de mujeres paradas ha bajado el 1,7%. La tasa de paro masculina asciende al 6,5% y la femenina al 11,5%, con un ascenso de 0,8 y un descenso de -0,6 puntos porcentuales, respectivamente, en comparación con 2002.

El diferencial de la tasa de paro por sexo ha disminuido 1,4 punto porcentual, de 6,4 puntos a 5 con respecto al año anterior.

Beste muturrean, gazteenak (16 urtetik 24 urte artekoak) eta eraikuntzako soldatakoak daude: %27,4 eta %42,3 kontratu mugagabedun, hurrenez hurren, soldatakoen guztizkoaren aldean. Kontratu mugagabedun emakumeak %60 inguru dira.

Langabezia-tasa %8,3tik %8,6ra hazi da

Enpleguaren igoerarekin batera, 2003. urtean langabeen kopurua ere igo egin da eta 3.800 langabe gehiago dira 2002an baino, hau da, %4,7 gehiago. Langabezia-tasa %8,6ra hazi da, hau da, 2002an baino ehuneko 0,3 puntu gehiago.

Lurralde historikoka, langabeen kopurua Bizkaian bakarrik jaitsi da -1.600 langabe gutxiago- eta Gipuzkoan eta Araban 4.200 eta 1.400 gehitu dira, hurrenez hurren. 2003ko langabezia-tasa %7,8koa da Araban, %9,3koa Bizkaian, eta %7,9koa Gipuzkoan. Gipuzkoa 2002an langabezia-tasarik onena izan zuen lurraldea izan bazen ere, 2003an okertu eta ehuneko 1,1 puntu gehitu ditu eta Arabak beste 0,8. Bizkaia bakarrik hobetu du bere egoera, ehuneko 0,4 puntu gutxiagorekin.

2002an Bizkaiko langabezia-tasa ehuneko 2,7 puntu urrunduz Arabatik eta 2,9 Gipuzkoatik; 2003an, aldiz, aldea zertxobait murriztu da, 1,5 puntura lehen kasuan eta 1,4ra bigarrean.

Langabezia-tasaren sexuaren arabeko diferentziala ehuneko 1,4 puntu jaitsi da, emakumezkoenak gizonezkoena ia bikoiztu egiten duen arren

2003an gehitu egin da gizonezko langabeen kopurua eta jaitsi egin da emakume langabeena. Balio erlatibotan, gizonezko langabeen kopurua %14,5 igo da eta emakumezko langabeena, berriz, %1,7 jaitsi da. Gizonezkoen langabezia-tasa %6,5ekoa da; emakumezkoena, berriz, %11,5ekoa. 2002aren aldean, ehuneko 0,8 puntuko igoera eta -0,6ko jaitsiera izan dituzte, hurrenez hurren.

Langabezia-tasaren sexuaren arabeko diferentziala ehuneko 1,4 puntu jaitsi da aurreko urtearen aldean, hau da, 6,4 puntutik 5 puntura.

Disminuyen casi un 25% los parados que llevan 2 o más años buscando empleo

Por otro lado, aumenta el número de parados en los grupos de edad de 16 a 24 años (7%) y en el de 25 a 44 años (8,8%). En el grupo de 45 y más años (el que incluye menor número de parados), disminuye un 13,7%. La tasa de paro juvenil es del 22,2%, 2,7 puntos superior a la de 2002.

Destaca el descenso del número de parados que llevan 2 o más años buscando empleo, que son 13.800 (-23,8%). Con esta disminución, estos parados ya suponen un sexto del total, cuando en 2002 representaban el 22,5%.


2 urte edo gehiago lan bila dabilzan langabetuak ia %25 gutxitu dira

Bestalde, langabeen kopurua hazi egin da 16-24 urteko adin-taldean (%7) eta 25-44 urtekoan (%8,8). 45 urte eta gehiagoko taldean (langabeen kopuru txikiena duen taldean) %13,7 jaitsi dira. Gazteen langabezia-tasa %22,2koa da, 2002koa baino 2,7 puntu handiagoa.

Aipatzekoa da lan bila bi urte edo gehiago daramaten langabeen kopuruaren jaitsiera, 13.800 baitira (%-23,8). Gutxitze hori dela eta, langabe horiek langabeen gutzitzaoren seirena hartzen dute; eta 2002an, aldiz, gutzitzaoren %22,5 hartzen zuten.

16 urte eta gehiagoko biztanleria langabearen bilakaera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. (Milakotan)

Evolución de la población de 16 y más años parada. C.A. de Euskadi. Promedios anuales. (En miles)



La tasa de actividad femenina resulta todavía inferior a la de la Unión Europea, pero superior a la de la media española

Desde un punto de vista comparativo, se producen algunas diferencias entre los indicadores del mercado de trabajo de la C.A. de Euskadi en 2003 y de la Unión Europea (los últimos datos disponibles son de 2002).

La tasa de actividad vasca para la población de 16 y más años resulta ser algo inferior a la del promedio europeo (54,7% y 56,4%, respectivamente), mientras que la de los varones en ambos casos son casi iguales (65,9% y 65,8%). Sin embargo, la tasa de actividad femenina europea es 3,3 puntos superior a la de la C.A. de Euskadi (47,6% y 44,3%, respectivamente).

Además, la tasa de actividad femenina vasca, siendo más baja que la europea, es algo más elevada (1 punto porcentual) que en el promedio de España.

Emakumezkoen aktibotasun-tasa oraindik ere Europar Batasuneko baina txikiagoa da, baina Espainiako batez bestekoa baino handiagoa da

Alderatze-ikuspuntu batetik, aldeak daude 2003ko Euskal AEko lan-merkatuari buruzko adierazleen eta Europar Batasuneko adierazleen artean (azken datu eskuragarriak 2002koak dira).

16 urte eta gehiagoko gure erkidegoko biztanleriaren aktibotasun-tasa Europako batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da (%54,7 eta %56,4, hurrenez hurren); gizonezkoenak, ostera, ia berdinak dira bi kasuetan (%65,9 eta %65,8). Europako emakumezkoen aktibotasun-tasa, aldiz, Euskal AEkoa baino 3,3 puntu handiagoa da (%47,6 eta %44,3, hurrenez hurren).

Gainera, gure erkidegoko emakumezkoen aktibotasun-tasa, Europakoa baino txikiagoa izan arren, Espainiako batez bestekoa baino zertxobait altuagoa da (ehuneko puntu bat).

La tasa de paro femenino en la C.A. de Euskadi se mantiene por encima de la de la Unión Europea, pero se sitúa por debajo de la del conjunto del Estado


Respecto a las tasas de paro, y en comparación con la Unión Europea (2002), las diferencias se reducen notablemente, ya que la tasa de paro promedio de todos los países es un punto inferior a la de la C.A. de Euskadi.

Euskal AEko emakumezkoen langabezia-tasa Europar Batasuneko baina handiagoa da, baina Estatu guztikoa baina txikiagoa

Langabezia-tasei dagokionez, eta Europar Batasunarekin alderatuz (2002), aldeak nabarmen murriztu dira, herrialde guztien batez besteko langabezia-tasa Euskal AEkoa baina puntu bat txikiagoa baita.

Aktibotasun- eta langabezia-tasak sexuaren arabera. (%tan)

Tasas de actividad y paro por sexo (En %)



La tasa de paro masculino resulta ser casi medio punto inferior a la media de la Unión Europea, situándose algo menos de 2 puntos porcentuales por debajo de la del promedio español. Las diferencias principales con las tasas europeas reside en la tasa de paro femenino, ya que la tasa vasca resulta ser casi 3 puntos superior, y, en la tasa vasca de paro juvenil, 7,6 puntos más elevada. En estos últimos casos, las tasas de paro de la C.A. de Euskadi son más bajas que en el promedio de España, destacando la tasa de paro femenino con 4,4 puntos menos.

En comparación con el resto de las Comunidades Autónomas, la tasa de paro de la C.A. de Euskadi ocupa el sexto lugar en el ranking de menor a mayor tasa. Navarra, La Rioja y Aragón copan las primeras posiciones con tasas del 5,5%, 6,1% y 6,3%, respectivamente.

La proporción de contratados indefinidos entre los asalariados de la C.A. de Euskadi (67,2%) sigue siendo inferior a la existente en la Unión Europea

En el campo de la ocupación se sigue produciendo una diferencia muy notable en cuanto a la estabilidad en el empleo. Según la última Encuesta de Fuerzas de Trabajo de Eurostat (2002), en el promedio de los países europeos, más de 8 de cada 10 asalariados tienen un contrato indefinido (86,9%) y, en general, en todos los países esta proporción resulta superior al 80%, salvo en España (68,8%) y Portugal (78,2%).

Gizonezkoen langabezia-tasa Europar Batasuneko baina ia puntu erdi txikiagoa da eta Estatuko batez bestekoa baina ehuneko ia 2 puntu txikiagoa. Europako tasekiko ditugun alde handienak emakumezkoen eta gazteen langabezia-tasetan daude: gure erkidegoeko emakumezkoen langabezia-tasa ia 3 puntu handiagoa da, eta gazteena, 7,6 puntu altuagoa. Azken kasu horietan, Euskal AEko langabezia-tasak baxuagoak dira Espainiako batez bestekoa baina eta nabarmendu egiten da emakumezkoen langabezia-tasa 4,4 puntu-rekin.

Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuz, Euskal AEko langabezia-tasa txikienetik handienera doan taseen rankingean seigarren postuan dago. Nafarroa, Errioxa eta Aragoik betetzen dituzte lehenengo postuak %5,5, %6,1 eta %6,3ko tasekin, hurrenez hurren.

Kontratu mugagabedunek Euskal AEko soldatakoetan duten proportzioa (%67,2) oraindik ere Europar Batasuneko baina txikiagoa da

Enpleguaren arloan, oraindik ere alde oso nabarmena dago enpleguaren egonkortasunari dagokionez. Azkeneko Lan Indarren Inkestaren arabera (2002), Europako herrialdeen batez bestekoa, 10 soldatakotik 8k baina gehiagok (%86,9) kontratu mugagabea dute, eta orokorrean, herrialde guztietan proportzio hori %80tik gorakoa da, Espainian (%68,8) eta Portugalen (%78,2) izan ezik.

GLOSARIO

Población activa. Son todas las personas de 16 y más años que aportan un trabajo para producir bienes y servicios (población ocupada), y las que carecen de empleo en ese momento, lo buscan y están disponibles para incorporarse a él (población parada).

Población ocupada. Personas que poseen un empleo remunerado o ejercen una actividad independiente y se encuentran trabajando, o bien mantienen un vínculo formal con su empleo, estuvieron ausentes del trabajo por vacaciones, enfermedad, conflicto laboral, incidentes técnicos, etc.

Población parada. Personas que no poseen un empleo asalariado o independiente, están buscando empleo y están disponibles para trabajar. La definición de población parada según Reglamento de la Comisión Europea 1897/2000 (que restringe el colectivo a aquellas personas que han realizado gestiones de búsqueda de empleo de tipo activo en las cuatro semanas anteriores a la realización de la encuesta) se aplica a partir de 2002.

Población inactiva. Población que no está ocupada ni parada; incluye a las personas que realizan las tareas del hogar, los que cursan estudios, los jubilados, los pensionistas, los rentistas y los incapacitados.

Tasa de actividad de un grupo. Proporción de activos sobre la población de 16 y más años de ese grupo. EUROSTAT calcula las tasas de actividad para la población de 15 y más años.

Tasa de paro de un grupo. Proporción de parados sobre el total de activos de ese grupo.

GLOSATEGIA

Biztanleria aktiboa: 16 urte eta gehiagoko biztanleria da, ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko lan egiten dutenak (biztanleria landuna) eta momentu honetan lanik ez dutenak, lan bila dabiltzanak eta lanerako prest daudenak (biztanleria langabea)

Biztanleria landuna: enplegu ordaindua eduki edo jarduera beregaina egikaritu eta lanean dihardutenak, edota, enpleguarekiko lotura formala dutenak eta lanetik kanpo egon zirenak (oporak, gaixotasuna, lan-gatazka, gorabehera teknikoak, etab. direla eta).

Biztanleria langabea: soldatuko enplegurik edo beregainik eduki ez eta aktiboki lan bila dabiltzanak eta lan egiteko prest daudenak. Europar Batzordearen 1897/2000 Erregelamenduaren arabera biztanleriaren definizioa (zeinak langabeen taldea inkesta egin aurreko lau asteetan mota aktiboko lan-bilaketako kudeaketaren bat egin duten langabeetara murrizten baitu) 2002az geroztik aplikatzen da.

Biztanleria ez-aktiboa: landuna edo langabea ez den biztanleria; hor sartzen dira etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiratuak, pentsiodunak, errentadunak eta ezgaituak.

Talde baten aktibotasun-tasa: aktiboen kopurua, talde bateko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren aldean. EUROSTATEk 15 urte eta gehiagoko biztanleriarentzako kalkulatzeko dituzten aktibotasun-tasak.

Talde baten langabezia-tasa: langabe-kopurua, talde horretako aktiboen gurtizkoaren aldean.

La Encuesta de Población en Relación con la Actividad (PRA) es una operación estadística que viene realizándose por Eustat desde 1985. Tiene por objeto fundamental producir información continua sobre la oferta del Mercado de Trabajo de la C.A. de Euskadi. Trimestralmente da cuenta de la población ocupada, parada e inactiva, así como de sus variaciones y de las principales características sociales de estos colectivos.

Los datos de la PRA están sujetos a errores de muestreo derivados de la utilización de una muestra formada por 3.750 familias de la C.A. de Euskadi, a las que se encuesta cada trimestre, formando un panel. Los errores de muestreo de la PRA están en Eustat a disposición de los usuarios interesados. El cálculo de la población ocupada puede tener una oscilación de $\pm 3\%$ del valor publicado, y el de la población parada del $\pm 11,1\%$. La tasa de paro, por su parte, puede oscilar un punto porcentual arriba o abajo (datos del 4º trimestre de 2003, a un Nivel de Confianza del 95%).

Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta (BJA), Eustatek 1985etik egiten duen estatistika-eragiketa da. Helburu nagusizat dauka Euskal AEko lan-merkatuaren eskaintzaren gaineko aldi behingo informazioa eskaintzea. Hiru hilean behin, biztanleria landunaren, langabearen eta ez-aktiboaren berri ematen du, bai eta talde horien gorabehera nagusien eta gizarte-ezaugarrien berri ere.

BJAren datuak laginketa-akatsi atxikita daude, Euskal AEko 3.750 familiek osatutako lagin baten erabilpenetik ateratako akatsi, hain zuzen. Familia horiei hiru hilean behin egiten zaie inkesta, panela osatuz. BJAren laginketa-akatsak Eustaten daude, erabiltzaile interesatuen eskuera. Biztanleria landunaren kalkulak $\pm 3\%$ ko gorabehera izan dezake argitaratutako balioan; biztanleria langabearenak, berriz, $\pm 11,1\%$ eko. Langabezia-tasa, bestalde, ehuneko puntu bat mugitu daiteke gora edo behera (2003ko 4. hiru hilekoko datuak, 95% eko konfiantza-maila).

INFORMAZIO-ESKAERA / SOLICITUD DE INFORMACIÓN

Galderaren bat egin nahi baduzu edo datu gehiago behar baduzu, hemen aurkituko gaituzu:

Para cualquier consulta o ampliación de los datos, pueden dirigirse a:

EUSTAT (Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística)

Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 75 00

Fax: 945 01 75 01

e-mail: eustat@eustat.es

www.eustat.es

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO